

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2011ko maiatzaren 18a. VIII. urtea. 2.227. zenbakia. [www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)

## Pertsona guztiek ez dute bozkatzeko eskubide berdina

Maiatzaren 22ko udal eta foru hauteskundeetan etorkin guztiek ez dute bozka emateko aukerarik izango

EBtik kanpoko herrialdeetako herritarrek, gobernuak elkarrekikotasun printzipioa sinatu badute bozkatu ahal izango dute 03



Tolosaldeko etorkin talderik ugarietak marokorrek eta nikaraguarrek dira, eta horiek ez dute bozkatzeko aukerarik izango. I. GARCIA

### Ekainaren 11n eta 12an izango da bisiguaren festa Tolosan

Hirugarren urtez antolatu du Txinparta elkarteak gastronomiaz gozatzeko jaia, eta hiru otordu eskainiko dituzte; menuak 45 euro balio du 04

### Behin behineko onarpena eman dio Ibarako Udalbatzak plan orokorrari


Aho batez onartu zuten atzo, legealdi honetako azken osoko bilkuran, hirigintza arautzen duen proiektua; aurretik, udal langileek 2011ko lan baldintzen proposamena eman zieten zinegotziei 05

## Mikel Gastesiren hitzaldia gaur, Leitzako XXXIV. Kultur Aroaren barruan

Interneten segurtasunak duen garrantziaz ariko dira gaur, 19:00etatik aurrera, liburutegian; ekainaren 11n bukatuko dira kulturari eskainitako ekitaldiak III. Sagardo Egunarekin, eta tartean hitzaldiak, tailerrak, kontzertuak, eta ikuskizun ugari izango dira herrian 07


## Hogeita bederatzigarren greba eguna dute jangeletako langileek

Grebaren hirugarren astean gurasoen babesas jaso dute grebalariek; besteak beste, heziketa ikastaroak lan ordutegian sartzea eskatu dute 05



**TOLOSAKO INMAKULADA IKASTETXEA**

Kondeko aldapa 5B Tolosa • 943 67 36 29  
[www.inmakuladatolosa.com](http://www.inmakuladatolosa.com)



HEZIKETA ZIKLOAK

Goi maila		Erdi Maila
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gizarte Integrazioa</li> <li>• Haur Hezkuntza</li> <li>• Osasun Dokumentazioa</li> <li>• Diagnosi Irudia</li> </ul>	<b>ATE IREKIAK MAIATZAK 19 15:30 - 18:30</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erizaintza laguntzailea</li> <li>• Farmazia eta parafarmazia teknikaria</li> <li>• Sarbide proba</li> </ul>

KALITATEZKO FORMAZIOA



**IRUÑEKO HEZIKETA ZIKLOAK**

www.montesalbertia.com



**2011-2012 ikasturterako AURREMATRIKULA ekainaren 1etik 10era**

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A eta D ereduak):  
Ile-apolinketa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A eta D ereduak):  
Estetika

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (A ereduak):  
Estetika eta Ederotasuna (LOE)

GIPUZKOAKO IKASTETXE OFIZIAL BAKARRA. IKASKETAK DOAN  
San Ignazio, 25 • Tel.: 943 13 42 23 Fax: 943 89 41 96  
01229lav@hezkuntza.net • 20800 ZARAUZ

# Bilduk herrietako egitasmoak aurkezten jarraitzen du

Berrobin eta Ikaztegietan udal erronkak aurkeztu dituzte, legealdi berriari begira

## Asier Imaz

Berrobiko Bilduren hautagaiak hauek izango dira hauteskundeetan: Iñigo Aierza, Agurtzane Belaunzarán, Larráitz Esnaola, Joseba Odriozabala, Nerea Sasieta, Leire Arrue, Ainhoa Jauregi, Iban Carvalles, Jon Otamendi eta

Jon Ander Lezea. Datozen urteetan, Berrobik duen herri txikiaren izaera gordez, herritarren beharren arabera etxebizitza politika eman nahi dute aurrera. Alokairua bultzatzea ere, euren programan sartzen den puntua da. Herrian etxe hutsen kopurua aipatzekoa dela diote. Ingurumena ere kontuan izango duten gaia da, eta energia berriztagarrien aldeko apustua «nahitaezkoa». Herri partaidetza bultzatuko dute, «herrigintza landuz». Kultur mugimendua duen herri euskalduna nahi dute izatea Berrobi, eta horretarako herriko eragile ezberdi-



Berrobiko Bilduren zerrendan Iñigo Aierza, Agurtzane Belaunzarán eta Larráitz Esnaola doaz lehen postuetan. HITZA

nekin, kultur agenda dinamikoa osatuko dute.

## Ikaztegietako programa

Ikaztegietan udal ireki eta parte hartzailearen aldeko apustua egingo du Bilduk. Kultura, euskara eta herri giroa bizirik mantendu nahi dituzte. Osasun publikoa eta zerbitzuak hobetu nahi dituzte. Alokairu sozial eta babeseko etxebizitzaren aldeko apustua ere egin dute.



Ikaztegietako Bilduren zerrenda aurkeztu dute herriko plazan. HITZA

## ↓ Egitarauak

### TOLOSA

■ **Etzi, hilak 20.** Kanpainaren amaiera moduan, herri afaria egingo dute. Afariarekin batera, musika eta giro ona ziurtatuta izango dela azaldu dute. Jaia Zerkausian izango da. Orbela, Raku, Denak, Xirimiri edo 66 tabernan daude txartelak 15 eurotan, ikasle eta langabetuentzat 10 eurotan. Antolaketa lanak errazteko, txartelak lehen bait lehen eskuratzea eskatu dute.

### ZIZURKIL

■ **Gaur, hilak 18.** Kotxe karabana 19.30ean, Zizurkilgo Danena futbol zelaitik abiatuta.  
 ■ **Etzi, hilak 20.** Joxe Arregi plazan azken kanpaina egunari bukaera emateko, Haima musikaz giroturik, eta 19:00etan bizikleta martxa. 20:00etan hautagaien ekitaldia. 20:30ean barrikotea.  
 \***Oharra:** Eguraldi txarra eginez gero ekitaldia Zizurkil Goiko Zi-

miterioan egingo litzatekeela azaldu dute.

### IBARRA

■ **Etzi, hilak 20.** Kantu afari herrikoa 20:30ean Ibarra plaza. Kuadrilatan elkartzea gonbidatu dute, eta norberak eraman beharko du bere afaria, edaria bertan egongo da.  
 ■ **Maiatzak 22, igandea.** Kontaketa egiteko elkartuko dira, jaitxo bat ere egingo dutelarik.



Ibarra Bilduren ordezkariak kalean ibili dira programa banatzen. HITZA

# Asteasu Batuz-en udal programa eta egitaraua

Herritar guztiak elkartu nahi dituzte proiektu berri honetan Asteasu Batuzekoek; etzi herri afaria egingo dute

## A. Imaz Asteasu

Asteasu Batuzen jende anitza elkartu direla diote, «Asteasun aldaketa baten beharra ikusten dugulako». Proiektu berri honetan, herritar guztien parte hartzea nahi dute. Hainbat neurri azaldu dituzte bide honetan, besteak beste, udal aurrekontu parte hartzaileak eta erreferendum nahiz herri kontsultak.

Emakumearen inguruan, As-

teasu Batuzetik herri diagnostikoaren beharra azaldu dute, «ikuspegi integral batetik egoera iraultzeko».

Gazteriarri dagokionez, erabakitzeko eta antolatze guneak bultzatuko dituztela diote, entsesu eta sorkuntzarako aretoak eskainiz.

Kultura, kirola eta festaren baitan, «erronka nagusiena», herriko bizitzaren suspertzea dela onartu dute.

## Aralar alderdiak bat egin du

Aralarrekin Asteasu Batuzentzat eskatu du botoa Asteasun: «Ezkerreko zerrenda, abertzalea eta anitza aurkeztu du Asteasu Batuzek, eta ezaugarri horiek bat egiten dute gure egitasmoarekin.

Uste dugu Asteasuk pertsona bera alkatetzan luzaroegi izan duela eta aldaketa osasungarria izango dela udalarentzat».

## ↓ Egitaraua

■ **Gaur, hilak 18.** Pili Legarra eta Patxi Olasagastik *Asteasukoko egoera emakumea-hezkuntza uztarria*, gaia azalduko dute. Hitzaldia 18:00etan hasiko da udaletxean. Haurtzaindegia antolatuko da umeentzako haur parkean.  
 ■ **Etzi, hilak 20.** Herri afaria 20:00etan, elkartean. Txartelak herriko tabernetan daude eskuragarri.



Asteasu Batuz 22ko hauteskundeetan egongo da. HITZA

## Udal eta Foru Hauteskundeak 2011 →



Datozen udal hauteskundeetan hamar herrialdeetako nazionalitatea dutenek bozkatzeko aukera izango dute. Zerrendan horretan ez dira sartzen, esaterako, marokarrak eta nikaraguarak, Tolosaldeko etorkinen artean ugarienak direnak.

# Hautestontziaren aurrean, ezberdin

Imanol Garcia

**A**tzerritar nazionalitatea dutenek ez dituzte izango eskubide berdinak igandeko hauteskundeak iristen direnean. Espainiako Gobernuak elkarrekikotasun printzipioa sinatuta du Europako Batasunetik kanpoko zenbait herrialdeekin, eta bertako nazionalitatea dutenek aukera dute hauteskundeetan parte hartzeko.

Akordio hori hamar herrialdeekin sinatuta du Espainiak: Bolivia, Cabo Verde, Ekuador, Islandia, Kolonbia, Norvegia, Paraguai, Peru, Txile eta Zeelanda Berria. Beraz, herrialde horietako nazionalitatea dutenek bozkatu ahal izango dute udal hauteskundeetan. Kontuan hartu behar da foru hauteskundeetan ezin dutela parte hartu, akordioak tokiko maila bakarrik hartzen baitu aintzat. Bestalde, bozka aktiboa bakarrik egin dezakete. Hau da, bozkatu dezakete, baina ezin dira zerrendetan aurkeztu, ez dute bozkatuak izateko eskubiderik.

Bozkatzerakoan, baina, baldintza batzuk bete behar dituzte. Alde batetik, bost urteko legezko egoitza egiaztatu behar dute, eta hauteskunde erroldan aurrez izena eman behar dute. Norvegia da salbuespena. Herrialde hori izan zen lehena Espainiarekin akordioa sinatzen. Horrela, bost urteko legezko egoitzaren orde, hiru urtekoa eskatzen zaie. Bestalde, norvegiarrek eskubide pasiboa ere badute, hau da, zerrendetan joateko aukera dute.

Europar indarrean dauden legedi guztiak ez dute izaera bera. Hala, zazpi herrialdeetan, Alemaniaren, Frantziaren eta Italiaren esaterako, etorkinek ez dute botoa emateko eskubiderik. Beste hamabi herrialdeetan, Danimarkaren, Finlandiaren eta Herbehereetan esaterako, etorkin guztiak bozkatzeko aukera dute.

## «Mailak» sortzen dira

SOS Arrazakeriaren iritziz, elkarrekikotasun printzipioak «muga latzak» ipintzen ditu. Alde batetik, etorkinen artean «mailak»



Pertsona bat botoa ematen aurreko hauteskunde batzuetan. E. EZEIZA

sortzen direlako. Urte askotan hemen bizi arren, bere jatorriko herrialdeak Espainiarekin ez badu akordioarik, ezin dute parte hartu.

## Bozkatzeko, besteak beste, bost urteko legezko egoitza egiaztatu behar dute

Beraz, akordio hori sinatuta izan ala ez, ezberdintasunak sortzen dira.

Tolosaldeko 28 udalerritan 57 herrialdeetako 45.149 biztanle daude erroldatuta, Tolosaldea Garatzenek emandako datuen arabera. Hauetatik, atzerritar naziona-

litatekoak 2.145 pertsona dira (%47 emakumeak eta %53 gizonezkoak). Europako Batasuneko nazionalitate ugariak Portugal eta Errumania dira eta Europako Batasunetik kanpokoak Maroko, Nikaragua, Ekuador eta Ukraina. Hain justu, Marokok, Nikaraguan eta Ukrainan ez dute akordioarik sinatuta, eta beraz, eskualdean bost urte baino gehiago bizitzen izan arren, ez dute bertako nazionalitatea dutenek udal hauteskundeetan parte hartzeko eskubiderik.

Elkarrekikotasun printzipioak sortzen duen beste diskriminazio bat ere salatzen du SOS Arrazakeriak: «Kontuan izan dezagun zen-

## ↓ Akordioak dituzten herrialdeak

- Bolivia.
- Cabo Verde.
- Ekuador.
- Islandia.
- Kolonbia.
- Norvegia.
- Paraguai.
- Peru.
- Txile.
- Zeelanda Berria.

bat jende etorri den boto eskubiderik ez duten herrialdeetatik. Eta hori arrazoitzat hartuz, hemen ukatu egiten zaie boto eskubidea, zigor bikoitza ezarri». Etorkinen eskubideen aldeko elkartearen ustez, egoera horrek «kontraesana eta lotsagabeberia» ekartzen du: «Alde batetik, eskatzen zaio mendebaldeko balio demokratikoak bereganatu dituela egiazta dezan, eta bestetik, eskubide politikoak demokratikoki gauzatea ukatu egiten zaio etorkinari». Horrez gain, SOS Arrazakeriak salatzen du akordio horrek, Norvegiako kasua salbu, ez duela onartzen udal hauteskundeetan hautagai izateko eskubidea.

## Eskubidea guztientzat

Hauteskundeetan etorkinek pairatzen duten egoera jakinarazteko, hainbat egitasmo burutu dituzte SOS Arrazakeriak. Hala, hainbat udaletan mozioak aurkeztu zituzten egoera aldatze-

ko eskatuz. Tolosan ere aurkeztu zen eta baita onartu ere. PSE-EE eta PP ez beste alderdiek alde bozkatu zuten.

Mozioan zehazten denez, «elkarrekikotasun irizpideak muga handiak jartzen dituzenez biztanle immigranteen eskubide politiko- en egikaritzarako, eskubide hori immigrante guztiei zabalduko dien formulak bilatzearen alde agertzen gara». Horrez gain, gizararte integratzeko prozesuan eskubide politikoaren garrantzia nabarmentzen du mozioak: «Eskatzen dugu bozkatze eskubidea bozkatze pasibora ere zabaldu dadila, eta udal hauteskundeez gain beste hauteskunde batzuetara ere hedatu dadila».

Azkenik, demokrazia osoa eta parte-hartzailea izan dadin, «ezinbesteko» jotzen da mozioan udalerritan bizi ziren pertsonen eskubide politikoak «aintzat hartzea eta zabaltea».

SOS Arrazakeriak bultzatu

## Boto eskubidea ez duten herrialdeetakoek «zigor bikotza» dute, dio SOS Arrazakeriak

duen beste egitasmo bat udal hauteskundeetan aurkeztu den zerrenda bat osatze izan da. Denek Hiritar izana du, eta Donostian eta Hernanin aurkeztu dute. Botoak eskuratzeko baino, etorkinen eskubide politikoak aldarrikatzea da plataformaren helburua.

## Hilberriak

**ESKELAK**

943-65 56 95

[tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)



**PELLO EGIGUREN IRAOLA**  
(2011KO MAIATZAREN 16EAN HIL ZEN)



*Mendi berrien bila norabait  
abiatu zinenetik  
susmo bat hoska dabilkigu  
bihotzaren barrenetik  
tontor lortuaren irifarrez  
begira zaudela goitik*


**Zure izeba Trini eta familiakoak**

Tolosa, 2011ko maiatzaren 18an

**HILETAREN BALIOA**  
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakoitzak bere neumiko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazena da galdu duzuna,  
baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

902 402 900

[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)



Hirugarrenez antolatuko dute aurten bisiguaren festa. HITZA

# Bisiguak Zerkausiko parriletan

Datorren ekainaren 11n eta 12an bisiguaren festa izango da Tolosan; hirugarren urtez jarraian Zerkausia jatetxe bilakatuko da

Txinparta elkarteak Tolosako eta Orioko udalekin elkarlanean antolatzen du festa

## Izteia Urkizu

Aurten hirugarren aldiz, bisiguaren festa izango da Tolosan ekainaren 11n eta 12an, Zerkausian.

Gastronomiaz gozatzeko festa hau, Txinparta elkarteak antolatzen du, Tolosako eta Orioko udalekin elkarlanean. Hau dela eta, Orioko Katxiña, Xixario eta Joxe

Mari jatetxeetako parrilerok prestatuko dituzte Zerkausian zerbitzatzeko diren bisiguak.

Hiru otordu izango dira Zerkausian; larunbatean bazkaldu nahiz afaltzeko aukera izango da, eta igandean, berriz, bazkariak zerbitzatzeko dituzte. Menuari dagokionez, honakoa dastatu ahal izango dute bisiguaren festara

bertaratuek: antxoak gatzetan, tomate entsalada hegaluzearekin, jatorri zindapena duten Nafarroako zainzuriak, bisigua parrilan eta 'bixigoxo' postrea. Horretaz gain, menuaren barruan sartzen dira Heras Cordon 2002ko

**Larunbatean bazkaria eta afaria izango dira, eta igandean, berriz, bazkaria bakarrik**

erreserba ardoa, Gainza Getariako txakolina, Insalus ura, Irigoien sagardoa eta Zabala kafea.

Aipaturiko menuak 45 euroko prezioa izango du. Erreserbak egiteko Tolosaldea Tour-era deitu

daiteke, 943 69 74 13 telefono zenbakian, goizez 10:00etatik 13:30era eta arratsaldez 15:30etik 19:00etara. Era berean, [tour@tolosaldea.net](mailto:tour@tolosaldea.net) helbide elektronikoa ere erabil daiteke bazkari edo afari txartelak erreserbatzeko.

Ordutegiei dagokienez, 14:00etatik 15:00etara bitarte sartu beharko dute Zerkausira bertan bazkaldu behar dutenek; afaltzeko, berriz, 20:30etik 22:00etara tartea izango dute.

**Galiziar gastronomia ere bai**  
Datorren ekainaren 11n eta 12an, bisiguaz gain Galiziako hainbat produktuz gozatu ahal izango da Trianguloa plazan. Karpa handi bat jarriko dute Trianguloan, eta

Galiziako produktu tipikoenak eskuragarri izango dira: olagarroa, muskuiluak, datil freskoak, albariñoa eta ribeiroa. Postreak ere izango dira, gainera.

Ostiralean, arratsaldeko 18:00etatik aurrera irekiko dute galiziar produktuen karpa, eta larunbat nahiz igandean, goiz eta arratsaldez egongo da zabalik.

Janariari laguntzeko, eta herria girotze aldera, ekainaren 11 eta 12ko goizetan Galiziar etxeko Trisquete gaita eta dantza talde folklorikoa ibiliko da herriko kaleetan zehar.

Azkenik, larunbatean gaueko 23:00etan, dastaketarako 'queimada' prestatuko dute Trianguloan.

## Iruñeko kantu jirara irteera antolatu dute

Ekainaren 4an ospatuko dute kantu jira, eta Tolosa Kantarikoek egun pasa antolatu dute hara joateko

### I. Urkizu

Datorren ekainaren 4an, Iruñeko kantu jiran parte hartzeko aukera izango da, Tolosa Kantari taldeak antolatuta.

Goizeko 09:30ean autobusa hartuko dute zeren plaza aurrean. 10:30ak inguruan, Iruñean go-

salduko dute, eta eguerdiko 12:00etan Mercaderes kalean elkartuko dira hango kantuzaleekin. Bazkaria 15:00etan hasiko da, eta norberak eraman beharko du etxetik. Edariaz, ordea, antolatzailerak arduratuko dira. Bazkalondan, kantuan eta dantzan aritzeko aukera izango da, eta 19:00ak aldera, Tolosara itzuliko dira.

Egun pasara joateko 18 euro ordaindu beharko dira, eta txartelak Xirimirin, Babesen, Elurran eta Amarozko Ekaitzen daude eskuragarri. Txartelak lehebaileen erostea gomendatu dute.

## → Laburrak

### Hautagaien mahai ingurua euskarari buruz

**POLITIKA** > Bihar, maiatzak 19, mahai ingurua izango da Galizia euskara taldeak antolatuta, 19:00etan musika eskolara; *Euskarak zein politika behar du Tolosan?* izenburupean arituko dira solasean. Hizlariak Tolosako alkatezara aurkeztutako alderdietako ordezkariak izango dira: Iñaki Irazabalbeitia (Aralar), Ibai Iriarte (Bildu), Jokin Azkue (EAJ), Javito Telleria (HM!!), Pello M. Atxukarro (PP) eta Jose I. Asensio. Moderatzailea Jon Miranda izango da.

### Sanjoanetako estropaden izen-ematea

**KIROLA** > Datorren ekainaren 24an eta 26an San Joan jaietako batel estropadak antolatuko ditu TAKEk. Estropadetan parte hartzeko izen-emate egunak maiatzaren 24a, 26a eta 31 izango dira. Honetarako, 19:00etatik 20:00etara bitarte joan beharko da Zerkausi azpilara, TAKEko bulegora.

### Oargiren irteera astebururako

**KIROLA** > Datorren maiatzaren 20tik 22ra, Peña Forca eta Ezkurrera irteera egingo dute Oargikoek. Izena eman nahi duen edonork [info@oargi.org](mailto:info@oargi.org) helbidean edo 688 69 86 42 telefonoan egin dezake.

### Langabeentzat ikastaroak antolatu dituzte

**HEZKUNTZA** > Tolosaldea Garatzenek eta Tolosako Udalak finantzatuta, langabeentzat ikastaroak antolatu dituzte. Ikasleek Tolosan edo eskualdean errolatuak izan beharko dute. Kanpo merkataritzari buruzko ikastaroa eta erakusleihen txukuntzeari buruzko ikastaroa izango dira.

### 'Elogio de la cazadora' antzezlan ikusgai

**ANTZERKIA** > Ostiralean, hilak 20, Mefisto Teatoren *Elogio de la cazadora* antzezlan ikusgai izango da Leidor aretoan, 20:30ean. Sarrerek 10 euroko prezioa dute, eta Kutxan edo Leidorren eskura daitezke.

## Etxebizitza tasatuen zozketan parte hartzeko epea zabaldu dute

Interesatuek ekainaren 30a baino lehen inprimakia eta eskatzen den informazioa entregatu beharko dute

**E. Maiz** Zizurkil

Zizurkilgo Udalak 10 Eremuari, hau da, herriko plazako guneari, dagokion eremuan eraikiko diren etxebizitza tasatuen zozketan parte hartzeko eskariak aurkezteko epea ireki du. Honetan interesaturik dauden pertsonen inprimakia bete, eta eskatzen den informazioa entregatu beharko dute ekainaren 30a baino lehen.

Udalak, halaber, lursail hau eskuratzeko lizitazioa onartu du, eta 840.000 euroko oinarritzko prezioa finkatu du, betiere enpresa adjudikaziodunak udalak prestatu eta onartutako eraikuntza eta hirigintza plana errespetatzeko baldintzapean.

Udalak bultzatzen duen etxebizitza tasatuen sustapenak 42 etxebizitza eraikitzea aurreikusten du. Horietatik bat udalak bizilekua ematekoa izango da, eta beste 41ak zozketatutako diren tasaturikoak izango dira. Guztiek atxikitako trastetegi bat eta garaje plaza bat izango dute; jabetza erregimenean eskuratuko dira, eta 65 eta 80 metro karratu arteko azalera izango dituzte. Etxebizitzez

egongela, sukaldea, bainua eta logela bat, bi edo hiru izango dituzte.

### Herritarrek lehenetasuna

Zizurkildarrek erabateko lehenetasuna izango dute zozketan. Lehenetasunen ordenan ezartzen denaren arabera egingo dute: herriar azkeneko bost urtetan erroldaturik egon direnak kontuan izanik, edo udalerrian hiru urtez lan egin dutenak. Baita Zizurkilen bizitu direnak eta 15 urtez erroldatuta egon direnak ere, lehenengo postua hartuko lukezaten. Jarraian, ondorengo ordenan ezartzen dira hurrengo lehenetasun mailak: Zizurkilen erroldaturik egon arren baldintza hauek betetzen ez dituztenak, Tolosaldea bailaran erroldatuak eta beste edozein pertsona fisiko.

Zozketan parte hartu ahal izateko ezarritako baldintzek adin nagusia izatea eskatzen dute, Euskal Herriko udalerriren batean erroldatua egotea, azkeneko bi urtetan etxebizitza baten jabe edo babesturiko etxebizitza baten adjudikaziodun ez izatea, eta unitate eskatzaileak 45.500 euro baino gehiagoko diru-sarrerarik ez izatea.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa Zizurkilgo Udalaren udal bulegoetan (Teodoro Hernandezena, 6) edo Aurrera Plazan kokaturikoetan aurkeztu edota kontsulta daiteke.

## Euskarazko hedabideen laguntza igoera kolokan

Hedabideek 2012rako laguntzen %25eko igoera eskatu diete instituzioei; mahai bat osatuko dute

**Erredakzioa**

Euskarazko hedabideetako ordezkariak bilerak egin dituzte azken asteetan Eusko Jaurlaritzarekin, Nafarroako Gobernuarekin, eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako diputazioekin, euren egoeraren berri eman, eta etorkizuna bermatu ahal izateko bidea irekitzeko. Sektorearen berri eman diete instituzioei, eta hainbat eskaera ere egin dizkiete.

Diru-laguntza publikoetan 2012rako %25eko igoera eskatu dute hedabideek krisiaren ondorioei hobeto aurre egin ahal izate-

ko. Horretaz gain, publikitate instituzionalaren %25 eskarazko hedabideetara bideratu dadila eskatu diete, eta baita sektorearen eta instituzioen arteko mahai bat osatzeko, «gure egoera estuaz jarduteko».

EAEko instituzioak prest agertu dira sektorearekiko harremanetan sakontzeko, eta instituzioen eta sektorearen arteko mahaia osatuko da hedabideen egoera osatzeko. Hori albiste «pozgarritzat» jo dute hedabideen ordezkariak, gune horretatik «elkar lanean krisi egoerari hobeto erantzun zaiolako».

Nolanahi ere, kezka ere agertu dute hedabideek, 2012ko diru-laguntzen igoera aipatzean, instituzioek krisia aipatuta eragozpenak jarri dizkietelako. Krisi garaian laguntza publikoak gora egin behar duela aldarrikatu dute euskarazko hedabideek.



Asteasuko eskolako jangelan lan egiten duten 10 langileei gurasoek babesa azaldu zieten. I. GARCIA

## Grebaren hirugarren astean jangeletako langileek gurasoen babesa izan dute

Hogeita zortzi egun daramatzate greban langileek; patronalaren erantzunaren zain jarraitzen dute

**Eneritz Maiz**

Jangeletako langileek greban jarraitzen dute. Atzokoa hogeita zortzigarren greba eguna izan zen, eta astebetez patronalaren erantzunaren zain jarraitzen dute. Pasa den asteazkenean, enpresei beraien proposamena aurkeztu zieten, baina oraindik ez dute erantzunik jaso.

Idoia Zulaika jangelako langilea eta era berean, gurasoa da. Egoera honen aurrean hauxe azaldu du: «Jada 28 egun daramatzagu greban, baina astez aste goaz, eta ez dut esperantzarik galdu». Astelehenean, gurasoak erabatu zitzaizkien beraien protestei, eta «laguntza handia izan da gurasoen babesa jasotzea» argitu du.

Gurasoak ere kezkatu dira jangeletako langileen grebarekin,



Alegian, Iturri zahar Guraso Elkarteak deituta 50 lagun elkartu ziren. HITZA

eta era berean, eragin handia du familia askorengan. Arazoak dituzte beraien seme-alabak non utzi ez dakitelako.

### Lan hitzarmenean jasotzea

Langileek benetan zer eskatzen duten azaldu du Zulaikak. Hemezortzi lanordu gehiago eskatu dituzte, eta momentuz onartu badizkiete ere, ordu hauek lan hitzarmenaren bidez erregulatzea nahi dute, eta bertan jasota gertatzea.

Heziketa ikastaroak ere lan ordutegien barnean jaso nahi dituzte. «Umeen onerako izango da, informea egiteko, arazoaren aurrean arduradunekin elkartzeko,...» azpimarratu du.

Bestetik, ordezkariak eta enpresak kontratatutako langileak parekatzea nahi dute, hau da, lan berdina egiten dutenez, soldata bera izatea eskatzen dute. Eskualdeko langileen artean egoera ezberdinak daude, baina lortu arte borrokan jarraituko dute.

Gontzidapena

Mahai-ingurua

Euskarak zein politika behar du Tolosan?

Modinatzailea: Jon Miranda

Maiatzak 19, 19:00etan, Musika Eskolan, Sondilla kalea, 46 B

galtzaundi

# Hirigintza planari behin behineko onarpena eman diote azken bilkuran

Udal langileek 2011ko lan baldintzei buruzko proposamena helarazi zieten bilkuraren aurretik zinegotziei

**Asier Imaz** Ibarra

Legealdiko azken bilkura egin zuten atzo Ibarako udal ordezkariek. Hirigintzako plan orokorriari behin behineko onarpena ematea zen zerrendako gai nagusia, eta zinegotzi guztiek aldeko bozka eman zuten. Aurretik, plan horri jarritako 32 helegiteren inguruan hitz egin zuten. Horietatik 21 atzera bota zituzten, hiru onartuak izan ziren, eta gainontzekoak, partzialki onartu zituzten.

Orain, plan orokorra Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu behar du. Ondoren, berriro itzuliko da Ibarako Udalera, behin betiko onartua izan dadin. Hala eta guztiz ere, azken erabaki hori udal hauteskundeetatik ateratzen den



Azken osoko bilkura egin ondoren, zinegotziak eserlekuak uzten. A. IMAZ

udalbatza berriak hartu behar du.

Osoko bilkuraren aurretik, udal langileak batzar aretoan izan ziren. Udal ordezkariek bakoitzari 2011ko lan baldintzei buruzko euren proposamena eman zieten. Bertan, zerbitzu publikoen garapena eta normalizazioa aldarrikatzen zuten, baita prekarietatearen amaiera ere. Txelo Romeo

alkateak proposamen hori Eudelen eztabaidatzen ari direla esan zuen. Udal langileen ordezkariek horrela zela esan zuten, baina proposamena azkenean udal bakoitzak onartu behar duenez, langileen eskariak zeintzuk diren jakitea komenigarri ikusi zutela esan zuten.

Legealdiko azken bilkura gaztelerara hutsean hasi eta amaitu zen.

## → Laburrak

### Legealdiko azken osoko bilkura egingo dute bihar

**AMEZKETA** › Legealdi honetako azken osoko bilkura egingo dute, bihar, Amezketan. Batzarra 20:30ean hasiko da udal-etxeako pleno aretoan. Gai nagusia Plan Orokorreko 9. Ola Industria Sektoreko Birpartzelaketaren haserako onarpena izango da. Aurreko bilkuran hiritartze jarduketaren programaren egitasmoari behin betiko onarpena eman zioten. Biharko bilkuran batzordeetako informazioa ere emango da. Bestalde, zinegotziek hainbat obra eskara ere aztertuko dituzte batzarraren. Galdera eta erreguen tar-tearekin amaituko da osoko bilkura.

### 'Ni ere pertsona' erakusketan Kulturunean

**IRURA** › Aniztasun Kulturaren Inguruko Jardunaldien barruan, Iruran erakusketan antolatu dute. Hain justu, SOS Arrazakeriaren *Ni ere pertsona* erakusketak dago ikusgai Kulturunean. Hilaren 20a bitartean egongo da, eta egun osoan zabalik izango da.

## Arnedora bidaiaria jubilatuentzat

Udalak antolatuko du, eta bihar amaitzen da izena emateko epea; bidaiari bakoitzak 24,5 euro ordaindu behar ditu

**I. Garcia** Ikaztegieta

Ikaztegietak Udalak jubilatuentzako Arnedora bidaiaria antolatuko du. Hilaren 26an, ostegunean, egingo dute, eta 08:30ean aterako dira zubi paretik.

Hainbat leku bisitatuko dituz-

te. Lehenbizi Aldeanueva de Ebroko Ruiz Jimenez upategian ardo dastatzea izango dute. Horren ondoren Vico monasterioa bisitatuko dute. Gero, Factoria Callaghan fabrikara joango dira eta, azkenik, Arnedo herrian izango dira. Bazkaria Azagrako Venecia jatetxean egingo dute. Bazkariaren ondoren, dantza eta bingoa izango dute.

Pertsonako 24,5 euro ordaindu behar da bidaiaria. Interesatuak izena udaletxean eman behar dute. Horretarako epea bihar bukatzen da.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Zomorroak



### Bioaniztasunetik

**Jon Ander Galarraga**  
Biologoa

**D**itudan ezagunetatik, %90ak diete zentimetro bat baino txikiagoak diren animaliatxoak beldurra. Nahiko beldur irrazionala dela ezin uka, izan ere, oraindik ez dut Euskal Herrian zomorroen hozkadaz hil den inor ezagutzen. Nik uste, auto istripuz gehiago hiltzen direla urtean zomorro baten hozkadaz baino, horra xebeberia... inork ez die autoei beldurrik! Nonbait gure zerebro primitiboaren barreneko orrialdeetan, autoenganako beldurra idazteko dago!

Zomorroen barruan animalia mota ugari barneratzen dira, ala nola, munduaren errega diren intsektuak (tximeleta, inurri, soragin orratz, erle, kakalardo...), gure etxeak sare zikintzen dituzten armiarmak, lurpetik irteten diren milazango luzeak, eta gure mahaietan tarteka ikusten ditugun karramarroak.

Animalia hauen bereizgarri nagusia beraien kanpo-eskeletoa da, animalia hauek ez dute zuk eta nik bezala barne hezurrez osatutako eskeleto bat, hauen «hezurrrak» azal sendo bat eratuz kanpoan daude. Adibidez, txangurro eta karramarroak jaten ditugunean hauen kanpo eskeletoa apurtzen dugu, barneko muskulu zuri eta gozoa jateko.

Gurean ez ditugu armiarmak eta inurriak jaten, baina, dienez, kanpotik oso azal kirrikatsua daukate eta barnean oilaskoaren zaporeko haragi biguna.

Talde honen beste bereizgarria,

beraien hanka kopurua ugaria dela da. Intsektuek sei dituzte, armiarmek zortzi, karramarroek hamar eta milazangoek ia mila. Oso metodo ona da talde handi honetan lehen sailkapen bat egiteko. Guretzat zenbait larunbat gaetan bi hanka maneiatzea zaila egiten da... imajinatu zortzi hanka maneiatzea!

Hasierako garaian, gizakia arrain baten antzeko animalia txiki bat zenean, zomorroen ahaide urrunek lurra menperatzen omen zuten. Gainera, ez ziren gaur egungo zomorro txikiak, diotenez 50 zentimetrotako sorgin orratzak bizi omen ziren eta ia 2 metroko milazangoak, besteak beste. Hauei ezin deitu zomorroak! Zomorroenganako beldurra ez dugu jaiotzeaz izaten, askotan gurasoek duten beldurra umei igarotzen die eta kasu askotan, gure ume txoak zomorro hauetatik «babe-tek» zomorroak zapaldu egiten ditugu. Erle eta liztorren hozka-

**«Zomorroek hondakinak birziklatzen dituzte, gure gorotzak jan...»**

dak minberak direla ezin uka, eta kakalardo bat etxean sartzen zaitugunean beldurra pasatzen dugula ere ezin ezetz esan, baina gurekin bizi diren zomorro hauek, hondakinak birziklatzen dituzte, gure gorotzak jaten dituzte, lurra aireztatzen dute... Beldurra izatea libre da, baina saia gaitezen zomorroak gehiago ezagutzen, erosi gida bat, hartu lupa bat eta eskatu zure herrian zomorroi buruzko ikastaroak!

Zomorro ugari ibili da nire kontu elektronikoan eta eskari ugari egin dizkidate, saiatuko nahiz beraien eskari oro betetzen, mila esker denei! Eta jarraitu idazten [bioaniztasunetik@hotmail.com](mailto:bioaniztasunetik@hotmail.com) helbidiera, eta [bioaniztasunetik.blogspot.com](http://bioaniztasunetik.blogspot.com) bloga bisitatzen eta Facebook-en.

## Iragarki laburrak

### ESKAINZA

■ **Klase partikularrak.** Psikopedagogian eta hezkuntza berezian tituludunak LHko eta DBH1 eta DBH2ko ikasleei zuzendutako klase partikularrak emango lituzke. Andoain, Aduña, Villabona, Zizurkil, Astearsun edo inguruetan. Deitu 669 005 671 telefono zenbakira.

### LANA

■ **Ile apaindegia.** Esperientziadun pertsona behar da lanaldi osoz lan egiteko. Interesa

duenak bidali dezala curriculum [metxa2@yahoo.es](mailto:metxa2@yahoo.es) helbidera.

■ **Ile apaindegia.** Tolosako ile apaindegi batek esperientziadun pertsona bat behar du, lanaldi osoz lan egiteko. Interesatuak deitu 625 70 50 59 telefono zenbakira.

■ **Emakume euskalduna.** Etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko emakume euskalduna behar da, Zizurkilerako.

07:00etatik 15:00etara. Interesatuak bidali mezua [igor.lahidalga@gmail.com](mailto:igor.lahidalga@gmail.com) helbidera.

## Rafting egitera joango dira Haitzetan Rajukoak, Behe Nafarroara

Asteburu pasa hilaren 27tik 29ra izango da; irteera guztiak 22 euroko kostua besterik ez du izango

**M. Ugartemendia** Ibarra

Ikasturte honetako azken irteera Behe Nafarroara egingo dute Haitzetan Rajukoak. Urtarotik rafting egitera joango dira hilaren 27tik 29ra. Ostiralean, 18:00etan abiatuko dira Ibarra plaza, asteburu pasa egiteko.

Bertan furgonetetan edo kanpian egingo dute lo, irteera merkeagoa izan dadin. Horregatik, irteerara joaten direnei lo za-

kua eramateko eskatzen diete antolatzaileek, eta furgonetan dute-nei ere berau eramateko eskatzen diete.

Larunbatean, mendi ibilalditxo bat egingo dute lehenik, eta arratsaldean bertako gaztetxoekin hizketalditxo bat egiteko aukera ere izango dute.

Igande goizean joango dira rafting egitera; 22 euro kostako da, eta janaria antolatzaileek eramango badute ere, mokadutxo bat eramatea aholkatzen dute antolatzaileek. Besterik ez da eman behar.

Izena betiko lekuetan edo 652 715 800 telefonora deituta eman daiteke. Antolatzaileek jendea parte hartzerantz animatu nahi dute.



Larunbat honetan izango da kultur astearen baitan urtero egiten den mendi irteera. HITZA

## Leitza kultur ekitaldiz beteko da XXXIV. Kultur Aroa dela eta

Gaur, Mikel Gastesik Interneten segurtasunak duen garrantziari buruzko hitzaldia eskainiko du

**Maior Ugartemendia** Leitza

Abian da Leitza XXXIV. Kultur Aroa. Atzo hasi zen eta ekainaren 11n amaituko da. Teresa Martinezen hitzaldia izan zen Kultur Aro-

ari hasiera eman zion ekitaldia. Atzo iluntzean gazteriak aisialdian duen jarrerari buruz hitz egin zuen.

Gaur, Mikel Gasterisen txanda izango da. *Segurtasunaren garrantzia interneten* hitzaldia emanen du, 19:00etan, liburutegian.

Datozen bi asteetan kultur ekitaldiz beteko da Leitza, eta horrez gain, ekainaren 11n III. Sagardo Eguna ere ospatuko dute. Aurreko egunean sagardo dastatzeari buruzko hitzaldian izaten dire-

nek, ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izanen dute.

### Erakusketak

Agendan agertzen diren ekitaldiez gain, bi erakusketak ere ikusgai izanen dira udaletxean eta Aurreran: Miren Fagoagaren *Eho-zirikoan* eta Aldaia Argandoñaren erakusketak.

Leitza Kultur Taldeak antolatutako ekitaldiz betetako hila izanen dute honakoa, beraz, leitzarrek.

## Irudia ◊ Txarama



## XXXI. MUS TXAPELKETA

Urtero bezala, Txaramako Elkarteak mus txapelketa antolatu du Etxeberrixuren omenez. Aurtengoa XXXI. Mus Txapelketa izan da. Irabazleak Martin Martinez eta Axier Zeberio izan ziren. Elkarteak kideek irabazleak zoriondu eta eskerrak eman nahi dizkiete parte hartu zuten guztiei. HITZA

## → Laburrak

### Antziola eraberritzen laguntzeko kontua zabalik

**BERASTEGI** ◊ Apirilaren 19an Berastegiko Antziola baserriak su hartu zuen eta kiskalita geratu zen. Orain berastegiarrek Antziolako familiari lagundu eta baserria eraberritzeko diru laguntza eman nahi dutenez kontu korrante bat sortu dute, laguntza eman nahi duenak dirua bertan sartu dezakeelarik. Honakoa da Kutxa-ko kontua: 2101 0095 50 0127869113. Horrez gain, festa bat antolatzen ere ari dira.

### Udarako kamisetak diseinatzeko lehiaketa

**BELAUNTZA** ◊ Irarri serigrafiak udako kamisetak atera behar ditu, bezero eta lagunaren artean doan banatzeko. Horretarako diseinu lehiaketa bat antolatu du. Bertan edonork parte har dezake, baina lehiakide bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du. Lanak originala eta inoiz argitaratu gabea izan behar du. Lanak *irarri@terra.es* helbidera bidali behar dira, edo enpresan bertan utzi behar dira hilaren 30a baino lehen. Argibide guztiak eta lehiaketako oinarriak [www.irarri.serigrafia.com](http://www.irarri.serigrafia.com) helbidean aurki daitezke.

## ↓ XXXIV. Kultur Aroa

### Maiatzak 18, gaur

■ **19:00.** *Segurtasunaren garrantzia interneten*. Mikel Gastesik hitzaldia, liburutegian.

### Maiatzak 19, bihar

■ **20:00.** *Orreagako bataila*. Angel Rekalde eta Beñis Agiriren hitzaldia, Aurreran.

### Maiatzak 20, etzi

■ **17:00.** Kamiseta margotzeko tailerra, plazan.  
■ **18:30.** Perkusio tailerra, gaztetxean.

■ **20:00.** *Hitano berria sortzen ari ote gara?* Ritxi Lizartzaren hitzaldia, Aurreran.

■ **00:00.** La Jodera taldearen kontzertua, Torrean.

### Maiatzak 21, larunbata

■ **Goizean.** Mendi irteera.  
■ **20:00.** *Baginaren bakarriket* antzerkia, zinean.

### Maiatzak 22, igandea

■ **12:00.** Raul del Tororen ikasleak organo emanaldia eskainiko dute, elizan.

### Maiatzak 23, astelehena

■ **20:00.** Perurenatarren dokumentalaren aurkezpena eta solasaldia, Aurreran.

### Maiatzak 24, asteartea

■ **20:00.** *Makriobitika, jateko era bat baino gehiago*. Egoitz Garrorizango da hizlaria. Hitzaldia Aurreran izanen da.

### Maiatzak 25, asteazkena

■ **20:00.** *Urrezko millak, bidai-hitzaldia*. Fermin Aramendiren hitzaldia, Aurreran.

### Maiatzak 26, osteguna

■ **20:00.** *Inauteriak Euskal Herrian: tradizioaren forma berriak*. Aitzpea Leizaola, antropologo eta EHUko irakaslearen hitzaldia, Aurreran.

### Maiatzak 27, ostirala

■ **20:00.** Elkarretaratzea, Lopezen.

■ **23:00.** Kerobia taldearen kontzertua eskainiko du, zinean.

### Maiatzak 28, larunbata

#### GAZTEEN EGUNA

■ **14:00.** Bazkaria.  
■ **18:00.** Kalejira.  
■ **19:00.** Malabare ikuskizuna plazan.

■ **20:00.** Batukada.

■ **21:00.** Luntxa.

■ **23:00.** Hidro eta Vomito taldeen kontzertuak. Gazte Asanbladaren ekimena da hau.

### Maiatzak 29, igandea

■ **09:00.** Gaiteoren eskutik diana bikaina, plazatik abiatuta.  
■ **11:00.** XXXIV. Artisau azoka.

### Ekainak 10, ostirala

■ **08:00.** Sagardo dastatzeari buruzko hitzaldia, Aurreran.

### Ekainak 11, larunbata

■ **18:00.** III. Sagardo eguna, plazan.

## MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta  
Bataioak, Jantziak...

**Jatetxea**

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA



GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	19°
HOTZENA	12°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**  
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Belauntza,  
Berastegi, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Irudia** Villabona



**IRAKURKETA SAIOA, EGURALDIA LAGUN**

Herenegun arratsaldean eginiko eguraldi ona aprobetxatzeko *Bikote Irakurleak* ekimena burutu zuten Amaia-Villabonako Fleming herri ikastetxean. «Ikasleek adin desberdineko kideek osatutako bikoteak egin dituzte, eta eskolan zehar sakabanatu dira batak besteari

aurreko astean aukeratutako liburua irakurtzeko asmoz», argitu dute irakasleek. Burubelarri aritu ziren irakurketa saioa egiten, argazkietan ikusi daitekeen bezala. Aipatu behar da, era berean, pasa den astean eskolako 5. eta 6. mailakoek bertso emanaldia eskaini

zutela Jesusen Bihotza ikastolako ikasleekin batera, Gurea zineman. Amaia Agirre bertsolariaren eskutik ikasturtean zehar jasotako ikasketen emaitza entzun eta ikusi ahal izan genuen: pijoak, makarrak, domadore eta animaliak, mendizaleak... HITZA

**Agurrak**



**Urte askoan!**  
**Aitor Muduate Zabala (Anoeta).**  
Zorionak. Gaur 3 urte. Muxu handi bat Uxue, aitona eta amonaren partetik.

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Bronte, C. I. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Agenda**

**DEIALDIAK**

- **Albiztur.** Aste Kulturalaren barruan bideo emanaldia izango da gaur, 10:00etan udaletxeko hitzaldien aretoan. Bideo honetan eguneko zentrora joaten diren adinekoen eta ezinduen iragana eta egungo errealitatea azaltzen dutela argitu dute antolatzaileek.

**XIII. HITZA**  
Aste Santuko  
argazki lehiaketa

Argazkiak ikusgai  
[www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)  
webgunean

**XIII. ARGAZKI LEHIAKETA**  
atalean  
**eman botoa!**

**SALESIANOS** urnieta  
**SALESIARRAK**

**LANBIDE HEZIKETA**  
**FORMACIÓN PROFESIONAL**

Orriak garrantzitsuak, Inprimaketa, Irudiak, Herriak, Informatika, Elektronika, Erretorika  
Orriak garrantzitsuak, Inprimaketa, Irudiak, Herriak, Informatika, Elektronika

ikastetxea ikusteko aukera  
**puertas abiertas**

**zatoz ven**  
Eramangarri baten  
Zozketa

maiatzak 28, 10:00-13:00  
28 de Mayo, 10:00-13:00

[www.salesianosurnieta.com](http://www.salesianosurnieta.com)

**Euskarazko komunikabideak DENON BEHARRA**

Duten garrantziaz jabetzeko,  
faltan izan arte  
itxoiten dugu maiz